



OSU SANTESEBAN

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA ♦

Etsipenez eta amorruraz

PÚBLICO egunkari digitalean irakurria: Guardia Zibileko zuzendaria Guerrilleros de Cristo Rey taldekoa izan omen zen, Ferrolen, 70eko hamarkadan. Hainbat lekukok salatzen dute artikuluan, izen-deiturekin salatu ere. Garai horiek ezagutu genituenontzat, salaketa guztiz sinesgarria da; gutako askok antzeko lekukotasunak emango lituzke hemen bertan kate, palo eta inoiz pistolaren batekin ibiltzen ziren talde ultraeskuindar horiei buruz. Berdin azalduko genuke nola agertzen ziren manifestazioetan edo ekitaldi publikoetan, kolpeak banatuz eta jendea beldurtuz. Edo nola egiten zieten eraso pertsona bakartuei, esbistikak militanteen larruan labanaz eginda. Edo nola suntsitzen zituzten (eta dituzten!) gustuko ez duten ideologia politikoaren aldeko monumentu, agerpen, edo sinboloak oro.

Berdin azalduko genuke sekula ezin zela ezer frogatu, ezin izan zela ezer egin haien aurka, zigorgabetasun osoz ari baitziren; Estatuaren indar errepresiboen babes osoarekin ari zirelako, jakina.

Orain irakurtzen dut *Públicok* ematen duen berria eta tristura alimale batek bereganatzen nau. Ez, ez

da anekdota bat. Ez, ez da kasualitate bat. Denok dakigu zer den, izendatzen ausartu ohi ez bagara ere.

Urteak joan, urteak etorri, iraultza teknologiko oso bat gertatu da, aldatu dira gauza denen eta gu denon itxurak, estatu berrien sorrerak mapak itxuraldatu ditu, indar-harreman bestelakotuetatik nazioartean hitzarmen berriak jaio dira... baina faxismo espainiarrak hor dirau, estatuaren muinari atxikia, goroldioa harriari legez.

Eta hau dena diot atzoko *Berria* egunkariak ekarri zuen albisteak barren-barrenetik ukitu ninduelako: Joan Mari Torreal dai, zerbait bada guretzat, duintasun eta zintzotasun intelektualaren ikurra da. Ohiko interes material pertsonalen gainetik ari denari zor zaion autoritate moralaz jantzitako erreferente bat.

To, zer diren gure erreferente moralak torturatzaile batentzat: erregela batekin nahi erara zirikatzen ahal dituen testikulu bi.

Eta antza denez, berrogei urte geroago, inork ezin dio horri erremediorik jarri. “Agenda politikoan” beste gauza batzuek dute “lehentasuna”. ■

Iraultza teknologiko oso bat gertatu da, aldatu dira gauza denen eta gu denon itxurak, estatu berrien sorrerak mapak itxuraldatu ditu, indar-harreman bestelakotuetatik nazioartean hitzarmen berriak jaio dira... baina faxismo espainiarrak hor dirau, estatuaren muinari atxikia, goroldioa harriari legez

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Joko nuke

ZINEZ aspertzen direnak badira. Behialako ihizi-saioetan higitzen ziren testosterona isuriak, basurdearen, azeriaren edo oreinaren atzetik. Denborak aldatu dira eta gehienok pantailaz pantaila gabilta dagoeneko, eta ez bakarrik *Goenkale* sailaren azken atalak ikusteko. Alex Wellerstein amerikarrak zartatze nuklear birtualak, amesten ditugun lekuetan eragiteko Nuke-map izenarekiko gunea ireki zuen 2012an.

Areva multinazionalak nuklearraren alorrean diru-galtze ikaragarriak dituen alan jokoak ezagupena lortzen du. Sarraskiaren tokia hautatzen duzu, ere-

muaren hedapena, hil eta zauritu kopurua eta jo, botoi gorria zapatu dezakezu Stanley Kubricken *Docteur Folamour* filmean bezala. Halaber, orain arte gertatu atomoaren istripuak errepikatzen ahal dira letania morbidoaz gozatuz: Hiroshima, Maralinga, Txernobyl, Fukushima...

Eztia da herioa behatz soilez zabaltzea eta nuklearra ez dela hain lanjerosa ondorioztatzea. Atomoaren dantza, funtsean, fantasma lizuna delako, estatuak eta garapen xedeak urtzen dituen histeria erakargarria.

Autosuntsiketaren fazinazioak dirau, suntsitua bestea den ber. ■